

### 1. SARRERA

---

Demokrazia parte hartzailea batez ere arlo politikoan jorratu izan da azken 50 urteetan, eta batez ere teorikoki garrantzitsuak izan dira horretarako Hego Ameriketatik etorri izan diren esperientziak. Hezkuntza arloan askosaz konplexuagoa izan da bere onarpena, izan ere abiapuntu gisara eskola beraren kontzeptua irauli egiten da, eskola ez da hierarkia bat eta ikasleek ez dute beheko mailarik. Horrela, ikasle zein irakasleak komunitate bereko partaide dira eta honek, ezinbestean, kontraesanak sortarazten ditu, eskola hasieratik baloreak hedatzeko instituzioa baita, eta instituzio hierarkizatua.

Pedagogia alorrean eredu ezberdinak gailendu dira, hasi Summerhillek bultzatutako esperientziatik, jarraitu Freire edota Ferreren lan interesgarri eta ezkertiarretatik eta bukatu anarkismoaren eskolan edota eskolarik gabeko mugimenduan (John Holt).

Euskal Herrian berriz, gutxi dira honen inguruan egindako esperientziak eta izatekotan ere, beti egon izan dira hierarkikoki planteatuak, alegia, irakasleek erabaki dute ikasleek boterearen edota erabakitze gaitasunaren atal bat euren gain uztea. Alabaina, hau ez da eredurik ohikoena eta normalean bestelako esperientziak jaso ahal izan ditugu.

### 2. PARTE HARTZEA EUSKAL HERRIAN

---

Ez dago parte hartzearen gaia espezifikoki lantzeko eta garatzeko antolatzen den herri eragilerik. Alabaina, badira parte hartzearen gaia lantzen duten eragileak. Aipatzekoa da, esaterako, Zumalabe Fundazioaren eskutik egin diren ahaleginak, herri mugimenduen elkarguneak eratu eta hauen jarduna bultzatzeko. Hor dugu, era berean, Nazio Garapen Biltzarrean egiten ari den lana, herri eragileak eta pertsonak nazio eraikuntza prozesuaren protagonista bilakatzen dituen aldetik (aipagarria da, zentzu honetan, 2005eko Nazio Ertabaidako Tailer Nagusian Brasilgo bi adituk aurrekontu parte hartzaileen inguruan aritu zirela). Hor dugu Euskal Herriko Jendarte Foroa, parte parte hartzea aldarrikatzen duen eta praktikan jartzen saiatzen den gunea. Era berean, aipa genezake hainbat udaletxetan parte hartzearen oinarritutako kudeaketa bideratzeko egin diren saiakerak. Baina, edozein kasutan ere, hezkuntza esparruarekin zerikusi handirik izan ez duten esperientziak dira horiek guztiak.

Bestalde, badira parte hartzearen gaia maila akademiko edo/eta zientifikoan lantzen duten pertsonak. Horietako gehienak unibertsitatera begira bizi dira, ez dute berebiziko lanik egiten DBH edo lehen hezkuntzari begira. Material oso onak kaleratzen dituzte, baina beti ere maila jasoan. Zentzu honetan, aipagarria da irakasleentzat baliagarriak izan daitezkeen makinatxo bat testu badirela, baina ez daude zehatz-mehatz ikasgeletara bideratuak.

Demokrazia parte hartzailea arestian esan dugun moduan bi eratara eman daiteke klasean, modu teorikoan: historian zehar izan diren esperientzian bilduma erakutsiz; eta bestalde, modu praktikoan, ikasgela bera bihurtuz demokrazia parte hartzailearen paradigma.

Parte hartzearen gaia jorratzen duten eragileek ez dute aintzat hartzen normalean lehen hezkuntza eta hori dela eta eremu horretara bideratutako materialeak eskasak izan ohi dira, beti ere hausnarketa abiapuntu klasiko batetik abiatzen delako: umeez (eta normalean gaztetxoek) ez dute nahikoa gaitasun haien egunerokotasuna planifikatu eta arrakastaz ikasteko; eta bigarrenik, beharrezkoa dute hezkuntza balore batzuk asumitzea, helduen munduak ekoizten dituen baloreak transmititu behar zaizkie eta hori hierarkia batetik egin ezean ezinezkoa da. Horrela

beraz, hezkuntza materiala gehiago dago bideratuta haien irakasle eta hezitzaileei eta ez ikasleei zuzenean.

Zentzu honetan, aipatzekoa da metodologia alorrean ez dela parte hartzea nola bermatu deskribatzen duen lanik eta unibertsitate esparruan egon badago ere, beti ere eredu teorikoak dira eta esparru sozialean lantzeko, baina ez gelan bertan. Areago, material gehienek parte hartzearen kontzeptua ukitzen dute baina ez dute modu praktikoan nola garatu behar den lantzen, alegia, Brasileko hirietako aurrekontu parte hartzaileak deskribatu eta goraiatzeko dira baina hor geratzen da ahalegin guztia.

Jardunaldien atalean azpimarragarria da oso urriak direla egiten diren ahaleginak eta esate baterako iaz antolatu zen lehenengoz Parte Hartuz taldearen eskutik honen inguruko mintegi bat, mintegi hertsia beti ere unibertsitatean nazioarteko gaiak jorratzen duten pertsonak aritu zirelako.

### **3. PARTE HARTZEA HEZKUNTZA SISTEMAN**

---

Parte hartzearen aldarrikapenak sustrai historikoak ditu hezkuntza arloan. Garai bateko hezkuntza eredu akademizista eta hierarkikoaren aurrean, horizontaltasunean eta elkarrizketan oinarritutako pedagogi planteamenduak sortu dira herrialde ezberdinetan. Mugimendu horiek arrakasta erlatiboa eduki dute, izan ere, garai bateko hezkuntza eredu aldaketak eragitea lortu badute ere, eskolaren egitura bere horretan mantenu baita.

Euskal Herriaren kasuan, eta zehazkiago hegoaldeko lau herrialdeei dagokionean, parte hartzearen aldarrikapenak konnotazio politiko jakin batzuk zituen 60. eta 70. hamarkadetan. Francoren diktaduraren garaia ziren, parte hartzearen antitesia beraz. Gizartea bezalaxe, eskola ere demokratizatzea aldarrikatzen zuten ikasle, irakasle eta guraso askok.

Batzuk ikastolen sorreran aritu ziren eta sorrera horrek berak bazituen parte hartzeari loturiko praktikak. Azken batean, ikastetxe egitasmoa gurasoen eta herritarren ekimenez sortzen zen, hau da, era parte hartzaile batez. Horrek ez du esan nahi, noski, ikastola bakoitzak garatzen zuen hezkuntza eredu parte hartzailea zenik. Askotariko ikuspegiak eta esperientziak zeuden alderdi horri dagokionez.

Eskola publikoaren kasuan, parte hartzearen afera ordura arteko ereduarekiko hausturaren aldarrikapenarekin lotzen zen. Eskola berez egitura hierarkizatua baldin bada, eskola frankista areago eta gehiago. Ildo honetan, hezkuntza komunitatearen parte hartzean eta pedagogi berrikuntzan oinarritutako eskola publikoaren aldeko mugimendu bizia eman zen. Eskola Kontseiluen sorrera garaipentzat jo zuten askok.

Esan dezakegu mugimendu hauek guztiak apalduz doazela 90. hamarkadan zehar. Parte hartzea eta pedagogia berrikuntza lehentasunezko aldagaiak izateari uzten diote hezkuntza jardueran, eta kalitatearen kontzeptuak pisua irabazten du. Kalitatearen kontzeptua eraginkortasun teknikoari lotu du administrazioak eta ondorioz parte hartzearen antonimoa bilakatu da (berez, kalitatea nahiko kontzeptu zabala da, kalitate ideala parte hartze mailaren arabera neurtu daiteke, esaterako). Gurasoen parte hartzea ez da garai batean bezain handia eta irakaslerian egitasmo berriak bultzatzeko eta hezkuntza eredu iraultzeko gogo gutxi somatzen da. Ikasleak, berriz, betiko lekuan daude: eskola kontseiluan ordezkaritza sinbolikoa bai, baina handik aurrera parte hartzeko aukerarik ez. Zuzendaritzek pisua irabazi dute eta zuzendari elkarteak *lobby* moduan antolatu dira. Ezin esan, beraz, parte hartzerako garai ona denik.

Hala ere, badira eredu parte hartzailea jorratzen saiatzen ari diren ikastetxe eta hezkuntza eragileak. Batzuk aspalditik datoz, esaterako Hernaniko Langile ikastola; beste batzuk, aldiz, berriak dira, esaterako Hezkuntza Komunitate Dialogikoaren egitasmoa. Bestalde, ikasleen aldetik antolatzeko eta erabakien sujetu izateko ahaleginak ugariak izan ohi dira, baina ikastetxeko erabakietatik at geratzen dira normalean.

Honela beraz, ondoriozta dezakegu zeharo urrun gaudela eredu parte hartzaile batetaz eta aldiz, sarri askotan eredu horren aplikazio antagonikoak aurkitzen ditugula.

#### 4. PARTE HARTZEA EUSKAL CURRICULUMEAN

---

Euskal Curriculuma sortzen ari garela, beharrezkoa da curriculum horretan parte hartzea sustatuko duten baloreak finkatzea. Noski, alferrik da ikasgelan balore horiek lantzea, ikastetxearen eguneroko praktikan bere horretan mantentzen baldin bada. Beraz, parte hartzearen irizpidea curriculum esplizituan ez ezik (klasean irakasten dena), ezkutuko curriculumean ere (ikastetxearen praktikaren bidez transmititzen eta beraz irakasten dena) kontutan hartu behar da. Hau da, bat etorri behar dira klasean lantzen dena (teoria), klasearen dinamika (ikasgelako praktika) eta ikastetxearen dinamika (ikastetxeko praktika).

Jarraian hiru esparru horietan hezkuntza jardueraren gidari izan beharko luketen irizpideak aipatuko ditugu. Irizpide hauek definitzerako orduan, anitzak izan dira eskola ezberdinek egin dituzten ahaleginak, eta hoiien artean nabarmenenak Summerhilleko esperientzia eta Paulo Freireren irakaspenak lirateke. Zentzu horretan sintesi lan bat egin daiteke honoko ondorio edo baloreak azpimarratzeko:

- Balio handia ematen zaio **harreman interpertsonalari** (pedagogia ez-direktiboa), alegia, elkarrizketa eta **gatazkak konpontzeko gaitasuna** jorratzen da (Freire). Honi lotuta doa **entzute aktiboa**, hots, denek izan behar dute gai bestearen iritzia jaso eta epaitzeko, denen artean adostasuneko neurriak ebazteko.
- Pertsona bakoitzaren **nitasuna onartu** egiten da baina aldi berean, honi erantsita doakio **ardurakidetasuna**. Eskubideak onartzen zaizkion neurri berean betebeharrak agintzen zaizkio. Summerhillen abiapuntua umea ona zenaren kontzeptua zen eta hortik eratortzen da bere ardurakidetasuna.
- **Horizontaltasuna:** Hierarkiarik eza edo behintzat, honen aldeko jarrera eta bilakaera, irakasle eta ikaslearen artean harreman mota berri bat bilatzen da, inor ez da bestea baino gehiago, nahiz eta alor batean jakintza maila handiagoa izan.
- **Autogestioa:** Ez maila ekonomikoan, baizik etiko edo moralean, hau da, gai izan behar da komunitatea bere arazo, kezka, gogo eta pozak konpartitu eta modu egokian bideratzeko, **komunikazioa eta informazioa bereizteko**, normalean gaur egun, komunikazio gutxi eta informazio asko ematen dutelako ikastetxeek.
- **Iritzi sorkuntza:** Bete betean bat egiten du ardurakidetasunarekin: guztiak gara gai elementuak hartu, ordenatu, epaitu eta iritzia emateko, iritzi kritikoa. Beti ere **argudioen erabilpenarekin**, dena argudiatu egin behar baita, argudio argi eta sendoekin gainera, ez du balio argudiorik gabeko jarrerak.
- **Komunitatearen baloreak onartzea eta errespetatzea**, izan ere guztion artean finkatu baitira.
- Parte hartzearen kontzeptua ezin da inolaz ere eredu teoriko gisa erabili, aitzitik, baliagarritasuna izango badu, praktikoa izango da, **praktika eta teoriak bat egin behar dute**; eta horrela **ikastetxea** irakaspenen eredu eta **paradigma** bihurtzen da, **ez kontraesanen habi bat** umearentzat, baizik bide zuzenaren erakusgarri. Abiapuntua jarduera bera da, eta ez teoriaren bilduma bat.